

# BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

## 2885

*EBAZPENA, 2025eko ekainaren 10ekoa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, zeinaren bidez UTE Ilunion Sociosanitario- Ibermática enpresaren hitzarmen kolektiboaren (hitzarmenaren kodea: 86100442012025) 2025. urteko soldata-taulei buruzko akordioa erregistratu, argitaratu eta gordailutzeko xedatzen baita.*

### AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2025eko maiatzaren 29an, aipatu hitzarmen kolektiboaren batzorde sinatzailerak egindako akordioaren dokumentazioa aurkeztu da REGCONen. Enpresaren eta sindikatuen ordezkariak sinatuta egon da akordioa.

Bigarrena.– 2025eko ekainaren 3an, zuzenketa-errekerimendua egin zen. 2025eko ekainaren 6an bete zen.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila sortu da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 2. artikulua arabera. Dekretuaren 7.1.e) artikulua lan-harremenen arloko lan-legedia betearaztea ezartzen du Sailaren eginkizunen artean.

Era berean, azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuak (Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak) 13.1.i) artikuluan Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzari esleitzen dio Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboaren eta Berdintasun Planen Erregistroa zuzendu eta kudeatzeko zeregina.

Bigarrena.– Langileen Estatutuari buruzko Legearen 85., 87., 88., 89. eta 90. artikuluek xedatutako eskakizunak betetzen ditu akordioak.

Hirugarrena.– Aurkeztu den akordioa inskribatu beharreko egintza bat da, Hitzarmen eta akordio kolektiboaren erregistroari eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuak 2.1.a) artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz. Inskripzio-eskaera eta dokumentazio erantsia aztertuta, lege eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatu da. Beraz, urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko lan-hitzarmen eta -akordio kolektiboak eta berdintasun-planak erregistratu eta gordailutzeari buruzkoa; otsailaren 14ko 20/2023 Dekretuak aldatu duena) 9. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, honako hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Akordioa Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Hitzarmen Kolektiboaren, Akordio Kolektiboaren eta Berdintasun Planen Erregistroan inskribatu eta gordailutzeko agintzea, eta alderdiei jakinaraztea.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 10a.

Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,  
MARÍA VICTORIA PORTUGAL LLORENTE.

## UTE ILUNION SOCIOSANITARIO- IBERMÁTICA EAE-KO TELELAGUNTZA-ZERBITZUA

## 2025EKO SOLDATA-TAULEN SINADURA-AKTA

Data: 2025eko apirilaren 28a.

Ordua: 09:10.

Tokia: Bilbao, Aragoi kalea 2.

Idazlea: Enpresako kidea.

Partaideak: enpresako ordezkariak eta LAB, UGT eta Independientes USO sindikatuetaordezkariak.

## GAI-ZERRENDA

## 1.– 2025. urterako soldata-etaulak aurkeztu eta onartzea

Enpresako ordezkariak jakinarazi dutenez, aplikatzen den hitzarmen kolektiboan ezarritakoaren arabera, eta 2024ko soldata-etaulak EAEko % 3,6ko KPlaren arabera eguneratu ondoren, hitzarmenaren batzorde sinatzaileari 2025eko soldata-etaula eguneratuak aurkeztu zaizkio.

Taula berriak atzera-eraginez jarriko dira indarrean 2025eko urtarrilaren 1etik, eta hitzarmenaren aplikazio-eremuan sartzen diren langile guztiei aplikatuko zaizkie.

Taula horien kopia entregatu zaio hitzarmenaren batzorde sinatzaileari, eta hura hartu izana idatziz jaso da. Akta honekin batera erantsi dira taulak.

Hitzarmenaren batzorde sinatzaileko ordezkariak soldata-baldintza berrien eta informazioaren jakitun dira, eta ez dute eragozpenik azaldu aurkeztutako taulen gainean.

Mar Sánchezi baimena ematen zaio 2025eko soldata-etaulak erregistro egokian aurkezteko, gehenez ere 15 egun naturaleko epean.

Beste aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat eman da, eta, adostasuna erakutsiz, akta hau sinatu da goian adierazitako lekuan eta egunean.

Bileraren amaiera-ordua: 09:45.

2025eko ekainaren 27a, ostirala

## 2025EKO SOLDATA-TAULA

Talde profesionalak	Kategoriak	Oinarrizko soldata hilean (eurotan)	Urteko soldata (eurotan)	Gaueko lanaren Plusa (eurotan)	Igandeak (eurotan)	1. jaieguna (eurotan)	Kilometroak (eurotan)
A	Proiektu-arduraduna	3.258,25	45.615,50	3,64	34,73	107,29	0,37
B	Atalburuak	2.353,11	32.943,54				
	Teknikariak	2.095,36	29.335,04				
C	Ikuskatzailea	2.048,50	28.679,00				
	Integrazio-koordinatzailea	2.001,68	28.023,52				
	Ofizial administraria	1.809,75	25.336,50				
D	Telelaguntza-ofiziala	1.723,30	24.126,20				
	Teleoperadorea	1.723,30	24.126,20				
	Administrari-laguntzailea	1.723,30	24.126,20				
E (prestakuntzako langileak) % 75	Teleoperadorea	1.292,48	18.094,72				
	Telelaguntza-ofiziala	1.292,48	18.094,72				
	Integrazio-koordinatzailea	1.501,26	21.017,64				
	Ofizial administraria	1.357,31	19.002,34				
	Administrari-laguntzailea	1.292,48	18.094,72				